



# Anboto Dorrea

**Bilbo, Espainia**

**36 solairuko bizitegi dorre hau  
Garellanoko eremuan RSHP-k  
diseinaturiko eraikuntza bakarra  
da eta 166 etxebizitza izango ditu.**



**Herri**  
Bilbo, Espainia

**Data**  
2017-

**Bezeroa**  
Inversiones y Servicios  
Arrasate S.A. eta

**Azalera**  
2,247.73 m<sup>2</sup>

**Solairuak**  
36

**Construcciones Urrutia**  
S.A.

**Ko-Arkitetua**  
Luis Vidal Architect

**Egitura Ingeniaria**  
BAC

**Zerbitzu Ingeniaria**  
BAC

**Kostu Kontsultaria**  
Luis Vidal Architects

**Kontratista**  
Construcciones Urrutia,  
S.A



Bilbok bere burua bersortzeko duen gaitasuna ondo dokumentaturik dago eta Guggenheim museoa (bersortze horri hasiera eman ziona) eraiki zenetik 30 urte pasata, Bilbok hiri berroneratzearen adibide nabarmen eta arrakastatsuenetarikoa izaten jarraitzen du. Bilbao Ría 2000-ekin koordinaturiko efortzu hauek Bilbok izandako eraldaketa atzeman dute, gainbeheran zegoen industri hiri izatetik mundu mailako turismo hiri izatera pasatuz.

Garellanoko eremua, etorkizunean 36 solairuko bizitegi dorre hau barne hartuko duena, bere garaian kuartel militarra izan zen eta Bilbo barnean, hiri berroneratzearen azken orube garrantzitsu eta erabilgarriaren irudi izan da. Bere garrantzia dela eta, 2008an Bilbao Ría 2000-ek 53 hektareako eremu honetarako masterplan bat garatzeko nazioarteko lehiketa bat antolatu zuen.

2009an RSHPren proposamenak konkurtsoa irabazi zuen eta Bilboko Udaletxeak masterplana onartu ondoren, Bilbao Ría 2000-ek arrakasta handiz jarri zituen enkantean masterplanak bere barnean zituen partzela ezberdinak, gizartea 2009ko krisi ekonomikoaren osteko atzerapen ekonomikoa jasaten egon arren.

Hala ere, P08 partzela ez zen salmentan jarri, aldameneko orubean burutuko zen geltoki berria eraikitzen zen bitartean autobusen aldi baterako geltoki izatera zuzenduta zegoelako.

2017an, autobusen geltoki berriaren eraikuntza martxan zegoelarik, RSHP-k P08 partzelarako "Aurretiazko Azterlan" batzuk prestatzeko enkargua jaso zuen Bilbao Ría 2000-en partetik eta partzela enkantean jarri zuen RHSP-k eginiko proiektua erabiltzeko aukerarekin. Hau izango zen Garellanoko eremuan garaturiko bost dorreen azkena. Grupo Arrasate Taldea-k, 1995etik Euskal Herriko Etxebizitza Kooperatiben Gestio Integralean lan egiten duenak, enkantea erabazi zuen eta gaur egun RSHP-ren Anboto Dorrea garatzen ari da.

Dorre hau RSHP-k Garellanoko eremuan diseinaturiko eraikuntza bakarra izango da eta 166 etxebizitzarako edukiera izango du, hiru solairuko komertzio guneren eta aparkalekura zuzenduriko lurperaturiko bost solairuren gainetik, 2.245m<sup>2</sup>-ko eremu batean 21.000m<sup>2</sup>-ko gutxi gorabeherako azalera eskainiz (sestra gainean).